

## **Bizkaiko Foru Aldundiaren 125/2017 Foru Dekretua, urriaren 24koa Arreta Goiztiarreko Zerbitzu Publikoaren prestazioa arautzen duena (2017ko urriaren 31ko BAO)**

Haur-garapena konplexutasun handiko prozesu dinamikoa da, non elkarri eraginez diharduten, oinarri genetiko jakin baten gainean, hainbat faktore biologiko, psikologiko eta sozialek. Faktore horietan gertatzen den edozein aldaketak, edozein etapatan (jaiotza aurretik, jaiotza inguruan, jaioberritan, jaio ostean eta/edo lehen haurtzaroan) arriskua dakarkio berekin haurraren garapenari. Kalkuluaren arabera, haurren %10 inguruk izan ditzake nahasmenduak garapenean. Horrenbestez, gai horri ekiteak transzendentzia handia du gizabanakoentzat, familientzat eta gizartearentzat.

Gaur egun, ebidentzia zientifikoak agerian uzten du adierazitako nahasmenduetako zenbait saihesteko modukoak direla, beste batzuk osorik edo partzialki zuzen daitezkeela, eta haietako gehienen ondorio negatiboak arindu egin daitezkeela esku-hartze egokiaren bidez. Esku-hartze hori zenbat eta lehenago hasi, orduan eta eraginkorragoa izango da, gainera. Egoerarik larrienetan ere, laguntza profesional espezializatuak nahasmendu horiek eragindako egokitze-arazoan agerpena prebenitzen du, haurren eta haien familien ongizatea hobetzen du, eta halaber hobetzen ditu autonomia-maila, parte-hartze aktiboaren maila eta gizarteratze-maila. Laguntza profesional hori arreta goiztiarrean kokatzen da.

Garapenaren nahasmenduek alderdi asko dituzte, eta, sarritan, konbinatuta agertzen dira; horregatik, arreta egokia emateko beharrezkoak diren esku-hartzeetan, haurra osoki hartu behar da kontuan, baina haren familia ere osotasun horren barruan sartuta. Bestalde, trastorno horiek era askotakoak eta konplexuak izaki, hainbat diziplina espezializatuk koordinatuta esku hartu behar dute halako kasuetan, eta, horregatik, profesionalen talde interdiziplinar edo transdiziplinar baten bitartez aztertu behar dira.

Euskal Autonomia Erkidegoan, aurrerapauso handiak egin ditugu premia horiei erantzuten; izan ere, era askotako plan, programa eta ekimenak abiarazi dira arreta integralean parte hartzen duten hiru jardun-arlo nagusietan eskumena duten administrazioen bitartez: osasuna, hezkuntza eta gizarte-zerbitzuak.

Zerbitzu, programa eta jarduketan sare aberats eta konplexu horrek, zalantzarik gabe, aurrerapen handiak bermatu ditu azken bi hamarkadetan, hobetu beharreko eremuak baitzituen; besteak beste, funtzionamendua hain zatikatua ez izatea lortu behar zen, inplikaturako arreta-sistema guztien artean beharrezkoa den koordinazioa eta lan- kideztza bermatuta.

Egoera horretaz jabetuta, eta jakinik hobetu zitezkeela hainbat arlotan egindako ahaleginen eraginkortasuna, efizientzia eta estaldura behar bezala koordinatutako sistema integralago baten bidez, Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluak, 2008. urtean, hiru foru-aldundiek sustatutako hainbat ekimenekin batera, erabaki zuten hausnarketa-prozesu bat sustatu behar zela, eta, hala, eginkizun horri beren-beregi heltzeko batzorde bat eratu zuten; batzorde horretan, osasun- eta hezkuntza-sistemetak eta gizarte zerbitzuetako ordezkariak parte hartu zuten.

Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluak sustatutako hausnarketaren ondorioz, 2010. urtearen amaieran, «Arreta Goiztiarreko Eredua Euskal Autonomia Erkidegorako» izeneko dokumentua prestatu zen, eta, dokumentu hori erreferentziatzat hartuta, erakundearteko batzorde tekniko batek erregulazio teoriko-praktikoaren proposamena aurkeztu zuen, 2012. urtearen erdialdera, aurrerago dekretu arauemaike bat egin ahal izateko. Proposatutako erregulazio hori Bizkaiko Lurralde Historikoan ezarri zen, pilotaje moduan.

Eredu horren oinarria sistemen arteko laguntza eta koordinazioa dira, eta albo batera uzten du sistemak estankotzat jotzen dituen ideia oro, hau da, kasuaren premiaren eta orientazioaren arabera sistemak intentsitate-maila desberdinetan kokatzeko irizpide oro.

Eredu horrek beharrezkotzat jotzen du lurralde mailako batzorde tekniko iraunkor bat sortzea hiru sistemen artean, jardueraren jarraipena egiteko. EAerako Arreta Goiztiarreko Ereduan

ezarritakoaren arabera, foru-aldundiari atxikita egongo da batzorde hori, eta hark sustatu eta koordinatuko du lurraldean arreta goiztiarraren garapena.

Bi dira antolaketa funtzional espezializatuaren elementurik garrantzitsuenak: arreta goiztiarreko balorazio-taldeak (AGBT) eta arreta goiztiarreko esku-hartze taldeak (AGET). Talde-mota biak daude foru-aldundien bigarren mailako arretako gizarte-zerbitzuen mende, eta, beren profesionalak izateaz gainera, osasun-sistemako eta hezkuntza-sistemako aholkularien laguntza izan behar dute.

Arreta goiztiarreko balorazio-taldeak kasuak baloratzen ditu, arreta-plan pertsonalizatua egiten du (hala badagokio), haren baimena izapidetzen du, emaitzak ebaluatu, alta baimendu eta kasuan-kasuan komeni den jarraipena egiten du; beraz, Bizkaiko Lurralde Historikoko arreta goiztiarreko zerbitzu publikoaren giltzarria da. Arreta goiztiarreko esku-hartze taldeek, berriz, arreta-plan pertsonalizatua aplikatzeko behar diren jarduketak egiten dituzte.

Euskal Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko Harremani buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7. c.1 artikulua ezartzen du lurralde historikoei dagokiela, nori bere lurraldearen barruan, gizarte-laguntzaren arloan legeria betearaztea. Nolanahi ere, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkideek ere zuzenean jardun dezakete arlo horretan.

2016ko martxoaren 7an, Euskal Autonomia Erkidegoko Arreta Goiztiarreko esku-hartze integralari buruzko otsailaren 2ko 13/2016 Dekretua argitaratu zen; dekretu horren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko osasunaren, hezkuntzaren eta gizarte-zerbitzuen arloetan arreta goiztiarraren eremuan egiten diren esku-hartzeak antolatzeko eta koordinatzeko oinarriko arauak ezarri nahi ditu Eusko Jaurlaritzak.

Hala eta guztiz ere, aurreko araudiak kontuan hartuta, eta, bereziki, Gizarte Zerbitzuei buruzko 2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legea kontuan hartuta, foru-aldundiek 25 urtetik gora daramatzate arreta goiztiarra eskaintzeko jarduketak egiten gizarte-zerbitzuen arloan; izan ere, 12/2008 Legeak beren-beregi jasotzen du Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan, arreta goiztiarreko esku-hartze sozialeko zerbitzua.

13/2016 Dekretu horrekin bat, foru dekretu honen bitartez oinarriko arau batzuk ezarri nahi dira, Bizkaiko Lurralde Historikoko osasunaren, hezkuntzaren eta gizarte-zerbitzuen arloetan arreta goiztiarraren eremuan egiten diren esku-hartzeak antolatzeko eta koordinatzeko.

Foru dekretu honek erregulazio onaren printzipioak betetzen ditu. Printzipio horiek jasota daude Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuaren 3. artikuluan (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da).

Dekretu honetan, genero-ikuspegia jasotzen da, bai hura prestatzeko orduan bai haren aplikazioan, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean ezarritakoarekin bat. Gainera, kontuan hartu da Bizkaiko Foru Aldundiaren 2013ko azaroaren 19ko 141/2013 Foru Dekretuan xedatutakoa. Izan ere, haren bidez, generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak ezartzen dira; ebaluazio hori Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean dago aurrez ikusita.

Ildo horretan, tramitazioan, foru dekretu horren 2. artikuluan aipatzen den txostena sartu da, hau da, generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzkoa.

Horrenbestez, eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17., 39.k eta 64.3. artikuluen arabera, Gizarte Ekintza Saileko foru-diputatuak proposatuta, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak 2017ko urriaren 24ko bilkuran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

## I.KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

### 1. artikulua.—Foru-dekretuaren xedea

Bizkaiko Lurralde Historikoan arreta goiztiarreko zerbitzua arautzea da dekretu honen xedea, Bizkaiko Foru Aldundiari dagokion eskumenaren barruan, osasun-sistemarekin eta hezkuntza-sistemarekin elkarlanean eta haiekien koordinatuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Arreta Goiztiarreko esku-hartze integralari buruzko otsailaren 2ko 13/2016 Dekretuan xedatutakoaren arabera.

## II.KAPITULUA ARRETA GOIZTIARREKO ESKU-HARTZE INTEGRALAREN ANTOLAERA

### 1. ATALA

## **BIZKAIKO ARRETA GOIZTIARREKO BALORAZIO-TALDEAK (AGBT)**

### **2. artikulua.—Izaera**

1. AGBT arreta goiztiarraren ardura teknikoa duen kide anitzeko organoa da, Bizkaiko Foru Aldundian arreta goiztiarraren arloko eskumena duen sailari atxikia. Osasun-sistemako, hezkuntza-sistemako eta gizarte-zerbitzuen sistemako profesional adi-tuek osatzen dute, eta elkarren artean koordinaturik lan egiten dute, kasuak baloratzen eta proposamen teknikoak egiten.

### **3. artikulua.—Eginkizunak**

1. Kasuari buruzko garrantzizko informazioa biltzea, baita haurren eta haur horien familien beharrianak baloratzea, beharrianen balorazio hori oinarritzat hartuta, hau bakoitzerako pertsonalizatutako arreta-plan bat prestatzeko.

2. Hiru sistemek Bizkaian ematen duten arreta goiztiarrari buruzko informazioa koordinatzea eta kudeatzea.

3. Arretaren koordinatzaile bat izendatuko da arreta goiztiarreko balorazio-taldean. Hark egingo die harrera umeari eta haren familiari, eta bera izango da erreferentea, bai familiarentzat, bai umearen arretaz arduratzen den arreta goiztiarreko esku-hartze taldearentzat.

### **4. artikulua.—Osaera**

Arreta goiztiarrean esku hartzen duten hiru arloetako —osasuna, hezkuntza eta gizarte-zerbitzuak— profesionalak osatuko dute AGBT, eta kide gehiago edo gutxiago izango ditu, kasuan kasuko beharrianen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Arreta Goiztiarreko esku-hartze integralari buruzko 2016ko otsailaren 2ko 13/2016 Dekretuaren

12.4 artikuluan ezarritakoaren arabera.

AGBT osatzeko, ezin du izan %40 baino gutxiagoko ordezkariarik.

### **5. artikulua.—Presidentetza**

Bizkaiko Foru Aldundian arreta goiztiarraren ardura duen ataleko buruak izango du presidentetza, eta, hura ordezkatu behar denean, gai horretan eskumena duen foru-zerbitzuko buruak ordeztuko du.

Hona arreta goiztiarreko balorazio-taldeko presidentearen eginkizunak, karguari datzekion beste guztiez gainera:

- a) Bilerak zuzendu, sustatu eta koordinatzea, eta taldearen ordezkari izatea
- b) Bilerak deitzea, bileretan buru izatea eta eztabaidak moderatzea.
- c) Bileren gai-zerrenda finkatzea, taldekideek egiten dituzten eskaerak aintzat hartzea.
- d) Aktei oniritzia ematea.
- e) Arreta goiztiarreko balorazio-taldearen jardunean sortzen diren proposamen eta iradokizun guztiak aurkeztea Bizkaiko Foru Aldundiko organo eskudunari.

### **6. artikulua.—Idazkaritza**

Bizkaiko Foru Aldundian arreta goiztiarraren arloko eskumena duen funtzionario baten egingo du AGBTren idazkaritza-lana Hona arreta goiztiarreko balorazio-taldeko idazkariaren eginkizunak, karguari datzekion beste guztiez gainera:

- a) Bileretan izatea, ahotsa bai baina botorik ez duela.
- b) AGBTren bileretarako deialdia egitea.
- c) Gaiak bideratzea, AGBTren kasuak aurkeztea, eta bilkuren aktak idaztea eta baimentzea.
- d) Onartutako kontsulta, irizpen eta erabakien ziurtagiriak ematea.
- e) Jardueri eta lortutako emaitzei buruzko urteko memoria egitea.

### **7. artikulua.—Antolaketa eta funtzionamendua.**

1. Lehenengo bileran, AGBT bere antolaketa- eta funtzionamendu-arauak ezarriko ditu, horrela bermatzeko arin izapidetzen direla beharrianen balorazioa eta arreta-plan pertsonalizatua, ahalik eta denbora gutxien igaro dadin eskaera egiten denetik ebazpena eman arte.

Edonola ere, kasuak baloratzeko egiten diren saioak alde batera utzita, hilean behin gutxienez bilduko da balorazio-taldea, irizpideak ezarri eta adosteko eta konplexutasun bereziko kasuak aztertzeko, halakorik baldin badago.

Erabakiak hiru sistemetako ordezkarien arteko adostasunez hartuko dira.

Hala ere, adostasunik lortzen ez bada, erabakiak kideen bi hereneko gehiengoz har- tuko dira, betiere kasuaren ardura nagusia duen sistema espresuki kontra agertzen ez bada.

Ildo horretan eta sistemen arteko parekotasuna bermatzeko, abiapuntutzat hartuta sistema bakoitzak solidarioki botoa ematen duela, sistema bakoitzak botoa emateko eskubidea duen pertsona bat izendatuko du, kontuan hartu gabe zenbat kide dituen balorazio-taldeak.

2. AGBTren bileretara hiru sistemetako adituak deitu ahal izango dira, bai eta arreta goiztiarreko esku-hartze taldeetako (AGET) arduradunak eta profesionalak ere.

## **2. ATALA**

### **BIZKAIKO ARRETA GOIZTIARREKO ESKU-HARTZE TALDEAK (AGET)**

#### **8. artikulua.**—*Izaera*

1. Arreta goiztiarreko esku-hartze taldeak administrazioarenak izan daitezke, zu- zeneko kudeaketakoak, edo, bestela, zeharka kudeatu ahal dira, araudian eta, bereziki, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 71. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako moduen bitartez.

2. Kalitatearen eta hurbiltasunaren arabera zehaztuko da arreta goiztiarreko zenbat esku-hartze talde egongo diren Bizkaiko Lurralde Historikoan, taldeok zenbat kide izango dituzten eta non kokatuko diren, eta elkarlan estuan jardungo dute erreferentziako arreta goiztiarreko balorazio-taldearekin.

3. Arreta goiztiarreko esku-hartze taldeek haurren garapeneko eta arreta goiztiarreko zentroetan egingo dute beren lana. Zentro horiek Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Zerbitzuen Erregistroaren baimena izan beharko dute, eta erregistro horretan inskribatu- ta egon beharko dute.

#### **9. artikulua.**—*Eginkizunak*

1. Arreta goiztiarreko esku-hartze taldeek diziplinarteko arreta terapeutikoa ematen diete haurrari, haren familiari eta inguruneari.

2. AGET bakoitzean, arretaren koordinatzaile bat izendatuko da. Hark egingo die harrera umeari eta haren familiari, eta bera arduratuko da arreta-planeko zereginak eta haietan parte hartzen duten profesionalak egokiro antolatzeaz. Gainera, berak emango die informazioa umearen gurasoei edo, bestela, legezko ordezkari. Izendapen horren berri eman behar zaie familiari eta arreta goiztiarreko balorazio-taldeko erreferentziako pertsonari.

Koordinatzaileari dagokio kasuan-kasuan egin beharreko kontsultak egitea arreta goiztiarreko balorazio-taldean kasua koordinatzen duen pertsonari, edo umearen arretan parte hartzen duten taldetik kanpoko profesional.

## **III. KAPITULUA**

### **PROZEDURA-ARAUAK**

#### **10. artikulua.**—*Eskabidea*

1. Erantzukizun publikoko arreta goiztiarra jaso ahal izateko, eskaera egin behar diote aurrez arreta goiztiarreko balorazio-taldeari arreta behar duen haurraren gurasoek edo, bestela, legezko ordezkari.

2. Dekretu honen I. eranskinean dagoen inprimaki-eredu normalizatuaren arabera bete beharko da eskabidea, eta, inprimakiarekin batera, eranskin horretan zehazten diren agiriak aurkeztu beharko dira, eta Bizkaiko Lurralde Historikoko arreta goiztiarreko balorazio-taldeari igorri behar zaio. Leku hauetan aurkeztu ahal izango da:

- a) Zuzenean, Bizkaiko Lurralde Historikoko arreta goiztiarreko balorazio-taldean.
- b) Euskal Osasun Sistemako haurrei arreta emateko zerbitzuetan.
- c) Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako zentroetan eta berritzeguneetan.
- d) Oinarritzko gizarte-zerbitzuetan edo Bizkaiko Lurralde Historikoan ezarritako bu- legoetan.
- e) Haurreskolak partzuergoaren mendeko haur eskoletan, eta udalen mendekoetan, eta
- f) Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez.

Edozein kasutan, interesdunek Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. artikuluan ezarritakoaren ara- bera aurkeztu ahal izango dituzte beren eskabideak.

b), c), d) eta e) kasuetan, zuzenean bidaliko dute eskaera Bizkaiko arreta goiztiarreko balorazio-taldera.

#### **11. artikulua.**—*Proposamena eta ebazpena*

1. Arreta goiztiarreko balorazio-taldean eskaera jaso ondoren, taldeak haurraren eta haren familiaren eta ingurunearen premiak baloratuko ditu, 2016ko otsailaren 2ko 13/2016 Dekretuaren 12. artikulua 6. zenbakiaren b) eta c) letretan ezarritakoaren arabera.

2. Arreta goiztiarreko balorazio-taldeak ebazpen-proposamena aurkeztuko dio dagokion organoari. Proposamen horretan, arreta goiztiarreko esku-hartze sozialaren zerbitzua emateari edo ukatzeari buruzko iritzia adierazi beharko du. Proposamenean zerbitzua ematea gomendatzen bada, AGETrako esku-hartze plana gehitu beharko da eta arreta-plan pertsonalizatuaren zati izango da.

3. Proposamena ikusita, Bizkaiko Foru Aldundian arreta goiztiararen arloko esku-mena duen saileko foru-diputatuaren foru-agindu bidez, arreta goiztiarreko esku-hartze sozialeko zerbitzua emateko edo ukatzeko ebazpena emango da, gehienez ere bi hila-beteko epearen barruan eskabidea egiten denetik.

4. Zerbitzua emateko ebazpenean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 88. artikuluan jasotako edukiez gainera, zerbitzu hori ematen duten haurren garapeneko eta arreta goiztiarreko zentroyen berri emango da, eta hara joan ahal izango dira zerbitzua jasotzera.

5. Ebazpena eman ondoren, esku-hartzearen hasiera-data haurraren gurasoen edo legezko ordezkarien eta aukeratutako zentroyaren artean adostuko da, gehienez ere hilabeteko epearen barruan, zerbitzua emateko ebazpena ematen denetik zenbatuta.

## **12. artikulua.**—*AGETentzako esku-hartze plana*

Arreta goiztiarreko zerbitzu soziala emateko ebazpenari, esku-hartze plana erantsiko zaio, arreta goiztiarreko esku-hartze taldearentzat. Bertan jasoko da zer jarduketa garatu behar dituen, arreta goiztiarreko balorazio-taldearen ustez, umeaz arduratuko den arreta goiztiarreko esku-hartze taldeak.

## **XEDAPEN GEHIGARRIAK**

### **Lehenengo.**—*Arauketa*

Foru-dekretu honetan aurreikusi gabeko guztian, bere antolaketa- eta funtzionamendu-arauak beharko ditu arreta goiztiarreko balorazio-taldeak, eta, betiere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko azaroaren 26ko 40/2015 Legearen II. tituluaren II. kapituluaren xedatutakoa.

Arreta goiztiarreko esku-hartze zerbitzua prozedurari dagokionez, dekretu honetan aurreikusi gabeko guztian, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera zuzenduko da prozedura hori.

### **Bigarrena.**—*Datu pertsonalak*

Esku-hartze prozesu guztietan, datu pertsonalak bildu eta tratatzeko, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean xedatutakoa beteko da, osasunaren arloko legedian bereziki babestutako osasunari buruzko datuei dagokienez ezarritako berezitasunak kontuan hartuta.

## **XEDAPEN IRAGANKORRA**

### **BAKARRA**

### *Arreta goiztiarreko laguntzen onuradunak*

Arreta goiztiarreko banakako laguntzari buruzko espedienteen kasuan eskaera azaroaren 1a baino lehen egin bada, egun horretan ebatzi gabe badaude eta ondoren aldeko ebazpena ematen bada, arreta goiztiarreko foru zerbitzu publikoaren bidez emango da laguntza dekretu hau indarrean jartzen denetik; egun horren aurreko aldien kasuan, berriz, arreta goiztiarreko banakako laguntzak arautzeko indarrean dagoen deialdian ezarritakoaren arabera.

## **AMAI ERAKO XEDAPENAK**

**Lehena.**—*Eskumenen titulua*

Baimena ematen zaio Gizarte Ekintza Saileko foru-diputatuari foru-dekretu honetan ezartzen dena garatu, betearazi eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzan, aginduzkoak diren izapideak bete ondoren.

**Bigarrena.**—*Indarreen jartzea*

Dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarreen.

## ERANSKINA

Haurren datuak / Datos del niño o la niña					
Lehen deitura / Primer apellido			Bigarren deitura / Segundo apellido		
Izena / Nombre			NAN, AIZ edo pasaporte/DNI, NIE o Pasaporte		
Jaioteguna / Fecha nacimiento		Sexua / Sexo		Nazionalitatea / Nacionalidad	
				Hizkuntza / Idioma	
Helbidea (kalea edo plaza) / Domicilio (calle o plaza)					
Blokea / Bloque	Zk. / Nº	Eskailera / Escalera	Solairua / Piso	Eskua / Mano	Atea / Puerta
Udalerría / Localidad		PK / CP		Probintzia / Provincia	
Aita, ama edo legezko ordezkariaren datuak / Datos del padre, la madre o representante legal					
Lehen deitura / Primer apellido			Bigarren deitura / Segundo apellido		
Izena / Nombre			NAN / DNI		Sexua / Sexo
1. telefonoa / Teléfono 1		2. telefonoa / Teléfono 2		Email	
Adingabeokarekin duen harremana / Vínculo con el niño/niña					
Jakinarazpenetarako helbidea / Domicilio a efectos de notificaciones					
Ohiko bizilekua ez bada soilik / Rellenar sólo en caso de ser distinto del habitual					
Kalea edo plaza) / Calle o plaza					
Blokea / Bloque	Zk. / Nº	Eskailera / Escalera	Solairua / Piso	Eskua / Mano	Atea / Puerta
Udalerría / Localidad		PK / CP		Probintzia / Provincia	
Adierazi zein eremutan eman den orientazioa / Indicar desde qué área le han orientado					
<input type="checkbox"/> Osasuna / Salud		<input type="checkbox"/> Hezkuntza / Educación		<input type="checkbox"/> Gizarte Zerbitzuak/ Servicios Sociales	
<input type="checkbox"/> Beste batzuk (zehaztu) / Otras (especificar)					

Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak eta hura garatzen duen araudiak xedatzen dutena betetzeko, **jakinarazten dizugu** zure datuak Autonomia Pertsonala Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiaren fitxategietan eta Administrazioarako eta Gizarte Sustapenerako Zuzendaritza Nagusiaren BFA03301 Karpeta Soziala fitxategian sartuko direla, modu integralean kudeatzeko aldundi honen gizarte-zerbitzuen prestazioa.

En cumplimiento de lo establecido por la Ley Orgánica 15/1999 de 13 de diciembre, de protección de datos de carácter personal, y su normativa de desarrollo, **le informamos** que sus datos serán incorporados a los ficheros correspondientes de la Dirección General de Promoción de Autonomía Personal y al fichero BFA03301 Carpeta Social de la Dirección General de Administración y Promoción Social, para gestionar de manera integral la prestación de servicios sociales de esta diputación.

**Datuetan sartu, datuak zuzendu eta ezereztatu eta haien kontra egiteko eskubidea** erabili ahal izango duzu, idazki bat aurkeztuz (NANaren edo identifikazio-agiri baliokide baten kopiarekin batera) erregistro-bulegoan (Ugaskobidea 3- bis, Bilbo).

Alderazten dut, **azalduko datuak benetakoak direla eta baimena ematen** diot Gizarte Ekintza Sailari eta AGBT-ri (Arreta Goiztiarraren Balorazioko Taldeari):

- Kontsulta guztiak egiteko eta beharrezko agiri guztiak eskatzeko arreta goiztiarreko zerbitzuak ematen dituzten erakundeei, preskribatutako edo diruz lagundutako tratamenduen orientazioan eta esku-hartzean asmatzen dela bermatu dadin.
- Kontsulta guztiak egiteko eta behar diren datu eta txosten guztiak eskatzeko gizarte- osasun- eta hezkuntza-zerbitzuei, arreta goiztiarraren eta haren jarraipenaren orientazio global eta integratua egin dadin.

Ud. podrá ejercer sus **derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición** dirigiendo una comunicación por escrito (incluya una copia de su DNI o documento identificativo equivalente.) a la oficina de asistencia en materia de registros de Ugaskobidea 3- bis de Bilbao.

Declaro que todos **los datos expuestos son ciertos y autorizo** al Departamento de Acción Social y al EVAT (Equipo de Valoración de Atención Temprana) para:

- Realizar las consultas y solicitar cuanta documentación fuera necesaria a las Entidades prestadoras de los Servicios de Atención Temprana, a fin de garantizar el acierto en la orientación e intervención de los tratamientos prescritos.
- Realizar todas las consultas, así como solicitar y facilitar a los Servicio Sociales, de Salud y Educación los datos e informes que fueran necesarios para realizar una orientación global e integrada de la Atención Temprana y su seguimiento.

Lekua, data eta sinadura / Lugar, fecha y firma:

Aita edo ama / Padre o madre

Legezko ordezkaria /Representante legal

**ESKABIDAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK**

- Familiaren errolda-ziurtagiri eguneratua
- Adingabearen NANaren, familia-liburu osoaren edo Erregistro Zibileko inskripzioaren fotokopia.
- Gurasoaren edo legezko ordezkariaren NANaren fotokopia.
- Orientazioa eman duen erakunde edo entitatearen txostena.
- Bestelako txostenak (klinikoak, hezkuntza arlokoak edo gizarte arlokoak)

**Beste pertsona batentzat jakinarazpenen kopia nahi izanez gero:**

- Jakinarazpenen kopiaren eskubidea
- Guraso-ahala arautzen duen hitzarmenaren edo beste ziurtagiri baten kopia

**DOCUMENTACIÓN A APORTAR JUNTO CON LA SOLICITUD**

- Certificado actualizado de empadronamiento familiar.
- Fotocopia del DNI, del libro de familia completo o de inscripción en el registro civil del niño o la niña.
- Fotocopia del DNI del padre, la madre o representante legal.
- Informe del organismo o entidad que le ha orientado.
- Informes adicionales (clínicos, educativos o sociales).

**En caso de desear copia de notificaciones para otra persona:**

- Solicitud de copia de notificaciones
- Copia del convenio regulador u otro documento acreditativo de la patria potestad



**Dokumentu honen helburua da bakarrik informazioa ematea, ez du inolako balio juridikorik.**